

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEEN SAILA

3312

AGINDUA, 2025eko uztailaren 14koa, Justizia eta Giza Eskubideen sailburuarena, zeinaren bidez behin betiko ebazten baita Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundean hizkuntza eta/edo lanpostuagatik bereziturik dauden Auzitegiko Medikuen kidegoko lanpostuak betetzeko berriazko lehiaketa.

Ikusi da Justizia eta Giza Eskubideen sailburuaren 2025eko maiatzaren 8ko Aginduaren bidez deitutako lekualdatze-lehiaketa espezifikoaren ondorioz izapidetutako espedientea. Agindu horren bidez, Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundean hizkuntza eta/edo lanpostu berezituak dituzten lanpostuak betetzeko deialdia egin zen.

Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa aldatzen duen abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoaren VI. liburuko VIII. tituluan eta abenduaren 7ko 1451/2005 Errege Dekretuak onartutako Justizia Administrazioaren zerbitzuko langile funtzionarioen sarrerari, lanpostuak betetzeari eta lanbide-sustapenari buruzko Erregelamenduaren 43. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoarekin bat etorritik, hau

EBATZI DUT:

Lehenengo artikulua.— Behin betiko ebaztea Auzitegiko Medikuen Kidegoko funtzionarioen arteko lekualdatze-lehiaketa, Justizia eta Giza Eskubideen sailburuaren 2025eko maiatzaren 8ko Aginduaren bidez deitua, eranskinean zerrendatzen den bezala.

Bigarren artikulua.— Destinorik lortu ez duten eskabideak, lehiaketa honetan parte hartu dutenek aurkeztutakoak, iraungitatzat jotzea. Beraz, hurrengo lekualdatze-lehiaketetan ez dira kontuan hartuko.

Hirugarren artikulua.— Lehiaketa honetan esleitu ez diren plazak bete gabeak direla adieraztea.

Laugarren artikulua.— Destinoa lortu eta jardunean, zerbitzu berezietan edo senitartekoak zain-tzeko borondatezko eszedentzian dauden funtzionarioek, lehiaketa honetan aipatzen diren kidego edo eskaletara itzultzen ez badira, 2025eko irailaren 3an utziko dute lanpostua.

Bosgarren artikulua.— Lortzen diren destino berriez hiru egun balioduneko epearen barruan jabetuko dira izangaiak, funtzionarioek herriz aldatu behar ez badute, edo zortzi egun balioduneko epearen barruan, Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen beste herri batera aldatu behar badute, edota hogeitun egun balioduneko epearen barruan, baldin eta beste autonomia erkidego batera joan behar badute, kasu hauetan izan ezik: Kanarietako Autonomia Erkidegoa, Balear Uharteetako Autonomia Erkidegoa, Ceutako Hiri Autonomoa eta Melillako Hiri Autonomoa; kasu horietan epea hilabetekoa izango da. Epea, betiere, lanpostu-uztearen egunaren biharamunetik hasiko da zenbatzen. Plaza baten esleipendunak lanpostuaz jabetzeaz zerbitzu aktibora itzultzea lortzen badu, hogeitun egun balioduneko izango da lanpostuaz jabetzeko epea, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera.

2025eko uztailaren 29a, asteartea

Lanpostu bat zerbitzu-eginkizunetan betetzen ari diren funtzionarioen kasuan, lanpostuaz jabetzeko epeei dagokienez, zerbitzua ematen ari diren herria hartuko da «funtzionarioaren herrizat».

Seigarren artikulua.– Esleitutako destinoei ezin izango zaie uko egin. Justizia Administrazioari Zuzendaritzak horien esleipenaren berri emango dio Justizia Ministerioari.

Zazpigarren artikulua.– Esleitutako lanpostuak betetzen ari diren bitarteko funtzionarioek lanpostua utziko dute, titularra lanpostuaz jabetu aurreko egun baliodunean.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honen aurka, berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke, aukeran, Justizia eta Giza Eskubideen sailburuari, hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Aldi berean argitaratzea lortzen ez bada, epeak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko dira.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 14a.

Justizia eta Giza Eskubideen sailburua,
MARÍA JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ.

2025eko uztailaren 29a, asteartea

ERANSKINA

Zbk.	Interesduna	Jatorrizko lanpostua	Antzintasuna gehienez 60	HE	Merezimendu orokorrak guztira	Funtzioak (0,25 puntu hileko) Gehienez 15	Prestakuntza Gehienez 14	Argitalpenak Gehienez 14	Merezimendu espezifikoak guztira	Merezimenduak guztira	Lanpostua /Dotazioa	Esleitutako destinoa
1	Diaz Oloriz, Monika	230003/3 AMEI Araba - Auzitegiko Mediku Aditua- Patologia	48,088888		48,088888	15	14	0	29	77,088888		Esleitu gabe
2	Barbero Sánchez, Maria Teresa	240001/13 AMI Burgos	7,0277675		7,0277675		14	3	17	24,027768	230002/9	AMEI - Bizkaiko Zuzendariordeza. Auzitegi- Psikiatriako Atala - ABIU
3	Izagirre Loroño, Maite	240001/25 AMEI Araba- orotariko Medikua	7,1610995		7,1610995				0	7,1610995	240001/9	AMEI-Arabako Zuzendariordeza. Medikuntza Orokorreko Atala